


ARNasa GARA



Hedabideentzako
dossier
informatiboa



Nondik gatoz?

Joshua Fishman soziolinguistak *Reversing Language Shift* (1991) liburuan hizkuntza baten biziraupenerako eta biziberritzerako *breathing space* edota arnasmune bat zein garrantzitsua den nabarmendu zuenetik, hizkuntzen biziberritze-prozesuetan iparroratz bihurtu da arnasmunak zaintzea.

Euskal Herrian ere lan handia egin da ildo horretan. Ikerketa eta programa soziolinguistiko ugari egin dira azken 20 urteetan herri hauen egoera soziala ezagutzeko eta zaintzeko asmoz. UEMA eta neurri batean Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua ere, besteak beste, eragile garrantzitsuak izan dira arnasmunen ezagutzan sakontzeko orduan, eta egindako lanek arnasmunen egoeren bilakaeraren berri eman digute. Horrez gain, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak 86 udal biltzen ditu gaur egun, guztien artean 253.000 biztanle inguruko lurrun euskalduna osatuz. Kontuan hartu behar dira, halaber, UEMAko kide ez diren gainontzeko arnasmunak, guztien artean osatzen baitute Euskal Herriko arnasmunen mapa.

Hedabideetan, euskalgintzan eta hizkuntza-politikako arduradunengan mezua errotu baldin bada ere, arnasmunen kontzeptua eta arnasmunen garrantzia arrotz samarra da herritar gehienentzat oraindik. Hizkuntza biziberritzerako funtsezkoak dira arnasmunak, bertan modu naturalean bizi delako, transmisioa ziurtatuta dagoelako eta hizkuntzaren hedapenean laguntzen dutelako.

Horregatik, lehen aldiz arnasmunen garrantzia azpimarratuko duen kanpaina abian jarri dute 3ko Itunkide diren Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoak; UEMAk, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Arnasa Gara kanpainak herri horien balioa nabarmendu nahi du, eta euskararen ongizatean duten garrantzia azpimarratu nahi die herritarrei. Horrela, arnasmunetako herritarrak ahalduntzea bilatuko da ekimen honen bitartez.

Arnasmunen ezaugarriak

Arnasmunak eta udalerrri euskaldunak zein diren adierazteko ez dago marra zurrun bat; oro har, euskararen ezagutza %80 ingurukoa dutenak sartzen dira multzo horretan. Honako ezaugarriak hauek dituzte arnasmunak:

Lehen hizkuntza

Bizilagunen lehen hizkuntza euskara izan ohi da, eta erabat naturala da euskaraz bizitzea eremu guztietan. Oso faktore garrantzitsua da hori, hizkuntzak iraungo badu. Horrez gain, euskalkidunak direla nabarmendu behar da.

Transmisioa

Arnasmunetan, belaunaldiz belaunaldi transmititu da hizkuntza, gurasoetatik seme-alabetara, modu naturalean. Bizi-bizirik dago euskara arnasmunetan. Bertako hizkuntza "normala" da, eta egunero berritzen ari da. Garai eta ohitura berrietara egokitzen da euskara arnasmunetan, bertako bizilagunek egoera guztietarako erabiltzen dutelako. Azken batean, arnasmunetan euskaraz egitea da arau soziala. Goitik behera nahiz modu horizontalean gertatzen den transmisioa da, herriko arlo guztietara zein herritar bakoitzaren esparru pribatura iristen dena.

Hauskortasuna

Lurgune euskaldunean euskararen indize altuenak dituzten herriak, arnaguneak alegia, biztanle gutxien dituztenak dira, oro har. Herri txiki horiek, hizkuntza-errealitate ahulagoa dute; beraz, aldaketen aurrean sentikorragoak dira. Hauskortasun-maila altuagoa dutela baieztatu daiteke. Azken hamarkadetan izandako aldaketa sozioekonomikoek eragin zuzena izan dute udalerrira euskaldunetan, baina bereziki arnaguneetan. Herrian gertatzen diren aldaketek eragina daukate hiztunengan, eta, horren ondorioz, hizkuntzaren ikuspegi orokorrean.

Prozesua

2018an abiatu zen kanpaina, Nafarroako Gobernuaren, Eusko Jaurlaritzaren eta UEMAren ekimenez. Hasiera haietan, ikerketa kualitatibo labur bat egin zen, parte hartze prozesuak eginez herriz herri. Goizueta, Lekeitio, Zumaia, Azpeitia, Elizondo, Mallabia, Dima eta Anoetako herritarrekin bildu ziren lametza komunikazio-enpresa eta UEMA, eta bildutako esperientzietatik hainbat ondorio eta hausnarketa atera dira, kanpaina diseinatzeko eta helburu nagusiak betetzeko baliagarriak izango direnak. UEMAk arnaguneen gainean eraikitako ezagutza eta praktikak ere baliatu dira kanpaina honetan.

Herri bakoitzak bere ezaugarriak eta berezitasunak dituela kontuan izanik, herrietako herritarrekin saioak antolatu ziren errealitate ezberdinak biltzeko asmoz. Herrien ezaugarri sozioekonomikoen arabera, zenbait tipologietan sailkatu ziren herriok: nekazaritzaguneak, industriaguneak eta turismoguneak. Sailkapenaren bidez, tipologia bakoitzean herritarrek euren bizimoduarekiko zuten pertzepzioa jaso nahi izan zen, eta sakonean, bizimodua eta

hizkuntza-bizipenak eta -erabilera nola uztartzen zituzten.

Arnaguneen errealitate osoa konplexuagoa eta hari-mutur gehiagokoa den arren, lagin gisa erabili dira zortzi herrietako esperientziak, kanpaina zabala diseinatzeko. Ikerketa kualitatiboa izatean, ondorioak une jakin batean eta herritar jakin batzuek eginiko adierazpenak nahiz bizi izandako bizipenak dira.

Ondorioak

Arnaguneetako herritarrekin egindako saioetan jasotako ekarpenetatik, ondorio hauek nabarmendu dira:

Arnaguneetan herritarrak **euskaraz bizi daitezke naturaltasun osoz**, aukera naturala edo erronka izan.

Herritar askok ez du baloratzen bere herriko hizkuntza-errealitatea eta euskararen egoerari dagokionez, **inguruko herrien errealitatea hobea dela uste dute**, euren herriek euskararen erabilera maila altua duten arren.

Euskal Herriko eremu gehienekin alderatuta **egoera "hobea"** dela aitortzen badute ere, euskararen **erabileran gainbehera** sumatzen dute beren herrietan.

Lan-eremuari dagokionez, gehienek kezka adierazi dute euren **lantokietan gaztelerak duen presentzia** altuagatik.

Parte-hartzaile gehienek lagun-eremuan euskaraz egiten dute. Erdaldunen bat badago **gaztelerara salto** egiten dutela aipatzen dute. Gazteenak izan dira jarrera hori mantentzen dutela adierazi dutenak.

Kezka nabarmena agertu da haur eta gaztetxoek euskararen erabileraren

inguruan. Guztien pertzepzioa da **haurrek geroz eta gehiago egiten dutela gazteleraz**.

Merkataritza- zein ostalaritza- eremuan hizkuntza nagusia euskara dela nabarmentzen dute, nahiz eta **paisaian ez** dela horrela aipatzen duten (tabernetan telebista gazteleraz).

Herritik ateratzean **euskarari eusten dioten gehienak gazteenak** dira, edota ariketa kontziente bat egiten dutenak. Gainontzeko askok, aurreiritziengatik edo ohitura faltagatik, gaztelerara jotzen dutela aitortzen dute.

Aurreiritzi batzuk badituzte “euskalduna” izan ahal den horien inguruan. Migrante-itxura badu, askok ez dute lehen hitza euskaraz egiten; hala egiten dutenek ariketa kontziente moduan hartu dute ohitura hori.

Euskararekiko edo norberaren euskalkiarekiko **konplexuak** ere badirela adierazi dute herri batzuetako parte-hartzaileek. Emakume helduen kasuan, besteek ez dutelako ulertzen, euren euskalkia “zakarra/itsusia” dela entzun izan dutelako, aldaera estandarra hobea dela uste delako edo eurenak balio txikiagoa duela uste dutelako, besteak beste.

Beren ingurua **euskalduntzeko izan duten gaitasunak oso harro** sentiarazten ditu hainbat parte-hartzaile. Batez ere herritik kanpo gertatzen diren komunikazio-harremanetan.

Herri batzuetan aipatu dute geroz eta ohitura handiagoa dagoela hizkuntza batetik bestera **saltoka** hitz egiteko eta hizketaldi elebidunak ohikoak izaten direla.

Harrotasunaz hitz egitean, herritar askok aipatu dute beren **harrotasuna euskalkiarekin lotuta** dagoela.

Arnasguneen garrantzia euskararen eraberritzean

Eredua

Arnasguneetako herritarrak eredu dira euskararen normalkuntzan. Erakutsi dute posible dela euskaraz bizi den herria, eta posible dela euskaraz egitea bizitzako esparru guztietan: lagunartea, lana, erosketak... Gaur egun, gainera, arnasguneetako erakunde asko ere eredu dira, eta erakutsi dute euskara politikarako eta administraziorako hizkuntza ere badela.

Biziberritzea

Euskara arau soziala denez, herritarrak herriko sektore guztietan aritzen dira euskaraz, ahozko komunikazioan bereziki; Hizkera informalak eta naturalak hitz eta molde berriak ekartzen dizkio euskarari, hizkuntza batek ezinbestekoa duen berrikuntza ekarriz, egunero biziberrituz.

Hedapena

Arnasguneek euren ereduarekin, euskara XXI.mendeko hizkuntza dela-eta, bizitza euskaraz egin daitekeela gogorarazten dute egunero. Bestetik, bertako herritarrak gainontzeko euskaldunekin hizketan daudenean euskaraz aritzeko joera gailentzen da, euskara-ohiturak hedatuz.

Kanpaina orokorra

Euskararen arnaguneetako errealitateak ezagututa eta helburuak zehaztuta, kanpaina hiru elementutan banatu da: Komunikazio-kanpaina orokorra, Kartzela serie digitala eta herrietako aurkezpen-ekitaldiak.

Kronograma:

1. fasea

Arnaguneen ahalduntzea eta aitortza. Aurkezpen-ekitaldiak egingo dira herriz herri, webgunean Arnasa Gara kanpainaren nondik norakoak bilduko dira eta, sare sozialetan, Arnasa Gara kanpainari buruzko mezua nahiz herrietako saioen agenda zabalduko da. Durangoko Azokan amaituko da lehen fasea, Kartzela serie digitalaren aurkezpen publikoarekin batera.

2. fasea

Abenduaren erdialdetik aurrera serie digitala Euskal Herri osoarentzat ikusgai egongo da. Orduan bigarren faseari ekingo zaio, arnaguneak ezagutzera emanez eta duten garrantziaz jabetzeko ariketa eginez. Euskal Herriko gainerako euskaldunei zuzenduko zaie mezua, diskurtsoaren lanketa eginez.

Marka:

Arnasa gara. Zergatik?

Arnasa bizitzeko ekintza da, ezinbestekoa. Bihotzarekin eta naturarekin lotzen gaituena. Mugimendua eta lasaitasuna da. Mezu sinplea bezain indartsua da. Arnagune diren herri euskaldunak eta bertako herritarrak Euskal Herriaren arnagune direla nabarmendu nahi da ideia horrekin, euskara bizirik mantentzearen berme nagusietako bat.

Dinamikoa da. Uneoro arnasten dugu. Arnasten dugun aireak ere badu halako izaera dinamiko bat, freskoa, lasaitasuna ematen duena.

Mezua lehen pertsonan eta kolektiboan: Arnaguneetako herritarren ahalduntzea sustatzen du. "Arnasa gara". Norberak bere buruari balio bat ematean oinarritzen da mezua. Mezua kolektiboan osatzeak identitate-sentimendu bat indartzen du. Jabetze-ariketa bat egitea da helburua, herritarrei direnaz eta izango direnaz jabetu daitezen tresnak ematea.

Arnasa / askatasuna / airea vs. arnasa falta / estutasuna / kartzela dikotomia

Irudia

Tximeleta airea da, leun mugitzen dena, inor molestatu gabe, arnasa bezala. Tximeleta eraldaketa da. Beldar izatetik, kolore bizi eta ederrenak edukitzera hel daitekeen animalia da, etorkizunean izan gaitzkeenaren metafora. Tximeleta txikia eta hauskorra da, zaindu beharrekoa, arnaguneak bezala.

Munduaren Arnagunea irudikatzen erabili izan da maiz Amazonas oihana. Zuhaitzaren formak badu antzik birikaren formarekin. Eta horrek, aldi berean, tximeletaren hegoekin.

Eta, horrek, aldi berean, bihotzarekin. Lau irudi funtsezko horiek jirabiraka sortu da iruditeria.

Era berean, arnaguneak etorkizuneko errealitate gisa irudikatu nahi ditugu: alde batean tximeleta dago eta, beste aldean, bektoreak, hedatzeko duen gaitasuna erakusten. Tximeleta etengabe zabaltzen doa, arnaguneak bezala.

Serie digitala: Kartzela

Hiru Damatxo ekoiztetxeak ekoitzi du Kartzela serie digitala. Zazpi kapituluko lana izango da.

Kanpainaren elementu berritzailea izango da, ez baita sekula egin arnaguneei buruzko fikziozko lanik. BECen harrapatuta dauden sei lagun dira istorioaren protagonistak, arnaguneetako herritarrek dira guztiak. BECeko zenbait tokitan harrapatuta gelditu ondoren, pixkanaka topo egingo dute elkarrekin, eta eraikinetik nola atera pentsatzen hasiko dira. Horretan ari direla sortuko dira lehen galderak: zenbat egunez iraun beharko dute BEC barruan? Nola moldatuko dira hain izaera desberdina duten sei pertsona elkar ulertzeko? Kasualitatea izan ote da ala beraiek hor egoteko ezkutuko arrazoiren bat dago?

Arnaguneetan egindako parte-hartze prozesuan ateratako ondorioetan oinarritzen da gidoia. Kanpaina orokorraren helburuak ez ezik, iruditeri kolektiboa aldatzea eta erreferenteak sortzeko egitekoa ere izango du serieak. Honako gai hauek jorratuko ditu, zeharka nahiz zuzenean:

- Adinekoek gazteekiko dituzten aurreiritziak.
- Euskara eta euskal kultura, berezkoa duen neurrian, bereziki

baloratzen ez duen gaztea vs jarrera kontzienteagoak.

- Beste jatorri bateko herritarrekin dauden aurreiritziak. Haien bizi dituzten egoerak, integrazioarentzat oztopo direnak.
- Arnaguneetako pertsonen besteak euskaraz hitz egiten jartzeko duten gaitasuna.
- Ulertuko ez dutelakoan, euskalkia batura hurbiltzeko joera.
- Hitanoaren erabilera eta generoa.
- Pertsonaiei dagokienez, aurre egiten diete aurreiritziei: Arnaguneetakoak dira, baina era askotakoak eta horrek argazki aberats bat ematen du, topikoak hautsiz.

Aktoreen lan-taldea

Aktorea	Pertsonaia	Herria
Iratxe Urkiaga	Mara	Lekeitio
Sambou Diaby	Iba	Zumaia
Juanen Saralegi	Juan	Lesaka
Erika Olaizola	Iune	Azpeitia
Amair Epher	Ekhi	Donibane Garazi
Ainhoa Etxebarria	Garazi	Ondarroa

Herrietako aurkezpen ekitaldiak:

Kartzela serie digitala aurkezteko parada izateaz gain, kanpaina gizarteratzeko eta herritarrekin lehen hartu-eman izateko balioko duen tarte izango da aurkezpen-ekitaldia. Aurkezle bat arduratuko da saioa gidatzeaz, eta Kartzela serieko bina aktorek ere parte hartuko dute. Arnaguneen garrantzia nabarmentzeko espazioa izango dela kontuan hartuta, hainbat bide erabiliko dira mezua behar

bezala zabaltzeko: ikus-entzunezkoak, hitzaldiak, aktoreen hitz-hartzea... Kartzela serie digitalaren lehen bi kapituluak primizian ikusteko aukera izango da. Saioaren amaieran herritarrek euren ekarpenak egingo dituzte, mokadu batez lagunduta (hala erabakitzen duten herrietan). Ordu eta erdiko saioa izatea aurreikusten da.

Orotara 22 udalerritan egingo dira saioak:

- Araba: Aramaio
- Behe Nafarroa: Baigorri (konfirmatu gabe)
- Bizkaia: Ajangiz, Bermeo, Dima, Lekeitio, Markina-Xemein eta Zeanuri
- Gipuzkoa: Abaltzisketa, Aduna, Aia, Altzo, Azpeitia, Itziar, Leintz-Gatzaga, Oresa, Urnieta eta Zerain
- Nafarroa: Etxarri Aranatz, Goizueta, Leitza eta Lesaka

Hedabideen ekarpena kanpainaren zabalkundean

Gizartearen parte-hartze aktiboa eskatuko du Arnasa Gara kanpainak. Kanpainaz gain, aldi berean hedabideetan eta herrietan landuko diren mezuek jarraipena izan behar dute herritarren artean, norbanako bakoitza jabetu dadin euskarari eta komunitateari zer-nolako ekarpena egiten dion. Tokiko hedabideei zeregin horretan lagundu dezaten eskatuko zaie, funtsezkoak baitira mezua gizartean txertatze orduan.

Hori dela-eta, arnasmuneen gaia lantzeko eta Arnasa Gara kanpainari jarraipena

emateko, proposamen zerrenda zehazten da jarraian:

Arnasmuneak zer diren azaltzeko **erreportajea**.

Arnasmuneei euskararen ongizatean duten eragina azaltzen duen **artikulua**.

Herrietako **ekitaldien berri** ematea.

Kartzela serie digitaleko **aktoreak elkarrizketatzea**.

Arnasmuneei ingurukoei euskara "kutsatzeko" ahalmen handia dutela jakinda, herrietan bizitzeari esker euskara ikasi duen **jendea elkarrizketatu** / erreportajea osatzea. Eta alderantziz, herrietik kanpora euskarari eusten diotenak (ahobiziak edo eusleak) elkarrizketatzea.

Solasaldia: euskara eta fikzioa gai gisa hartuta (Kartzela serie digitaleko bi kapitulu estreinatuko direla aprobetxatuz).

Euskaraldiarekin egin zen bezala, Arnasa Gara kanpainarekin ere **ale berezia** argitaratzea edo webgunean txoko berezia eskaintzea.

Euskararen Eguna arnasmuneei eginiko erreferentzia modura planteatzea.

Herriko spota: "Arnasmune bateko herritarra zara. Zertan zara ezberdin? Zertan zara berdin? Zer duzu gustuko? Zer duzu aipagarri?" galderari erantzunez, banaka nahiz taldeka bideo laburrak egitea.

Galdera posibleak:

Arnasmuneetan **zerk errazten duen eguneroko bizitza euskaraz egitea** galdera uste baino garrantzitsuagoa da. Hizkuntzari lotutako domino-efektua baita: "Denek egiten dutelako euskaraz, egiten dute denek euskaraz".

Arnasguneetako herritarrek **euren herrietatik irtetean** egoera ezberdinak bizi dituzte: batzuk tinko eusten diote euren hizkuntza ohiturei, ingurunean aldaketak emateraino. Beste batzuek lehen hitza ere ez dute egiten, ulertuko ez dieten beldur edo euskara ez dakitela pentsatuz. Gai horrek berebiziko garrantzia du herritarrek euskara zabaltzeko duten gaitasuna lantzeko orduan.

Arnasguneetan bizitzeari esker euskara modu osasungarrian bizi duten herritar asko ez dira kontziente hori ez dela ohikoena. Bertako **euskara-naturaltasunaren balioa** azpimarratu behar da, gainerako lekuen aldean.

Landu beharreko gaia ere bada, Arnasguneetan ere **euskararen erabilera jaisten ari denaren ustea**, batez ere gazteen artean. Batzuetan horren erantzukizuna haurrei leporatu arren, normalean, helduen ohiturei jarraitu baino ez diete egiten.

Erreferente falta ere aipatu izan da, gazteei dagokienez batez ere, egun kontsumitzen duten aisialdiren zati handiena erdaraz delako (youtubeko bideoak, sare sozialak, fikzioa...).

Kartzela serie digitala **euskalkian** egina da, bakoitza berean. Errealitate bat ikustarazteko eta erreferenteak sortzeko ideiarekin egin da horrela, eta azpimarratzea komeniko litzake.

Sahiestu beharreko eztabaidak:

Arnasguneak VS hiri handiak dikotomia. Hainbat iritziren ustez, lehentasuna eman behar zaio hiri handiak euskalduntzeari eta ez jada euskaldunak direnak indartzeari. Kanpaina honen asmoa ez da erdaldunagoak diren eremuak gutxiestea, baizik eta gehigarri moduan arnasguneek duten garrantzia azpimarratzea.

Euskalkiak VS Euskara Batua. Serie digitalean zenbait euskalkik hartuko dute parte eta herrietako ekitaldietan ere garrantzia berezia eman nahi zaie euskalkiei. Horrek hainbat eztabaida jar ditzake mahai gainean bata edo bestea aukeratu beharraren inguruan. Kanpaina sustatzen dutenen iritzieren arabera, euskalkiak eta euskara batuak ez dira elkarren kontrakoak, bakoitzak bere eginkizuna du eta bere eremua aitortu behar zaio. Horregatik, une batzuetan, euskalkiak garrantzia hartuko du, euskara batuari inolako lekurik kendu gabe.

Bertakoak VS kanpokoak. Arnasguneetan euskara-maila altua den arren, jaisten ari da hainbat herritan. Etorkinek euskara ez ikastearen ondorio dela entzun izan da nahi baino gehiagotan. Horrelakoak baztertu nahi dira, errealitatearekin bat ez etortzeaz gain, mezu arrazistak zabaltzeko baino ez baitira baliatzen.



Informazio baliagarria

Sustatzaileak eta koordinatzaileak

Kanpaina nagusiaren sustatzaileak 3ko Itunkide diren Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa; UEMA, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira. Kanpaina honen testuinguruan ekoiztu dute EITBk eta Hiru Damatxok KARTZELA serie digitala. IAMETZA kanpainaren sormenaz eta koordinazio-lanez arduratzen ari da: erreportajeak lortzeko, aktoreekin elkarrizketak egiteko, ekitaldien jarraipenak egiteko eta erakundeekin harremanetan jartzeko.

Harremanetarako.

Miren Osa: mosa@iametza.eus

Xalba Ramirez: xramirez@iametza.eus

Webguneak.

- www.arnasagara.eus
- www.kartzela.eus

Sare sozialak.

Twitter: @ArnasaGara

Instagram: @ArnasaGara

Facebook: Arnasa Gara

Mastodon: @ArnasaGara